

# KULTUR ASTEA 2014

Idatzi honekin batera kultur astearen egitaraua bidaltzen dizuegu.

Ikusiko duzuen bezala aurten ere aste guztian zehar egongo dira kultur ekintza ezberdinak.

Aipagarri diren ekintza batzuk, ostiralean, Fernando Amezketarraren bertsoak emanaldia, elizan. Ondoren, afarian, Alekos bakarrizketa. Larunbata eguerdian eskuzko pasakaren erakusketa egongo da frontoian. Ostiral arratsaldean, DIN7 taldearen eskutik, Karlos Irázuren eskultura sorta baten inaugurazioa eta larunbata goizean harrobira eta karobira bisita egingo da. Larunbata eta igandean, arratsaldez, egur erramientak erakusketa egongo da museoan.

Ostiralean afarira joan nahi duenak, izena emateko orriak ostatuan edo elkartean izango ditu. Afarira joaten ez direnak ere, ondorengo bakarrizketa entzuteko gonbitea luzatzen diegu.

Beste idatzi batean irakurriko zenuten, aurten ere herriko argazkiekin egutegi bat prestatu nahi dela. Argazkiak eta hauek nola aukeratuko diren informazioa aukeraketa egingo den lekuan jasoko duzue.

Herritar guztiak gonbidatuta zaudete kultur astean dauden ekintzetan parte hartzera.

Bertan ikusiko garelakoan agurtzen gara.

KULTUR BATZORDEA